

# Beldarrak eta pinpirinak

## Bibliografia bat

### Kantuak

→ **100 haur kantu 1 (1-13) / Batzuen artean (2001)**

1. Tximeleta mendian (Xirula Mirula)  
(...)



→ **Amalur / Pirritx, Porrotx eta Marimotots (2015)**

Tximeleta naiz  
(...)




→ **Biribil: Haur kantuak / Aguerre-Valencia, Josiane (1973-....) (2015)**

Pinpirina  
(...)



→ **Handitzen, handitzen / Batzuen artean (2007)**

19. Tximeleta mendian  
(...)



→ **Hazia / Otxalde taldea (1996)**

3. Pinpirin bat bezala  
(...)




→ **Kantuz kantu / Alfaro Gexan, Lantziri (1941-...) (2000)**

Tximeleta bat  
(...)



→ **Kukuka / Solorzano, Pantxika (1974-...) (2002)**

5. Pinpirina  
(...)



→ **Lodikroko CDa / Hennebutte-Millard, Amaia (2007)**

2. Pinpirina  
(...)



→ **Xirula Mirula: Haur kantuen bilduma / Urbietta, Imanol (1996)**

4. Tximeletan mendian  
(...)



## Haur literatura

### Albumak


#### → Leontzio eta bost tximeletak / Lodge, Jo (2012)

**Laburpena:** Leontzio tximeleten atzetik dabil mendian. Banan-banan zenbatzen ditu, azkenean bostak aurkitzen dituen arte.




#### → Arroxali beldarra / Gerlich, Andrea (2010)

**Laburpena:** Egin jolas Arroxali hatz-txotxongiloarekin. Ikusi gure beldar gosetia nola bihurtzen den tximeleta panpoxa. Liburu dibertigarria haurrentzat.




#### → Hartza eta tximeleta-sarea / Isern, Susana (2013)

**Laburpena:** Bildumagileek tximeletak ehizatu eta lastoztatzeko erabiltzen duten objektua, kasu honetan, tximeletak salbatzeko erabiliko du liburuaren protagonista. Basoan bizi den hartza, onberatasun hutsez ariko da salbamendu lanetan, inolako ordainik itxaron gabe. Hala ere, jasoko duen ordaina tximeleten laguntza eta adiskidetasuna izango da. Laguntasun bitxi eta eder bati buruzko liburua duzu *Hartza eta tximeleta-sarea*.



#### → Nor bizi da lorategian? / Sladen, Louisa (2007)


**Laburpena:** Zoaz lorategira esploratzera eta bertako izaki batzuk ezagutzera. Besteak beste, barraskilo labainkorraren eta tximeleta ederren berri izango duzu liburutxo honetan. Haurrei izugarri gustatuko zaie gorpilei eragitea eta animaliak nola agertzen diren ikustea!



#### → Beldar gosetia / Carle, Eric (2006)



#### → Laino pinpirina / Lopez, Joserra (2012)



## Lehen irakurgaiak

#### → Aisha eta tximeleta zuria / Lucas, Belen (2006)

**Laburpena:** Tximeleta zuriaren bisita jasotzen duen hiria oso handia da eta jende asko bizi da bertan. Haraino iritsi ziren Aisharen gurasoak eta amona ere, oso urrun dagoen herrialde batetik. Hiriko beste jende gehienaz bestelako ohiturak ditu Aisharen familiak, oraindik ez baita asko egokitu bizileku berrira. Uda da, eta hiriko haurrek kalean jostatu ohi dute goizetik gauera, beren amek etxera deitzen dieten arte. Aishak, ordea, leihotik ikusten ditu besteen jolasak, haiekin ibiltzeko irrikaz badago ere. Baina gauzak aldatzear daude.



#### → Pinpirin hartxo / Villar Janeiro, Helena (1988)



## Ipuinak

### → Animalien ipuintxo bat gauero / Bartzuen artean (2011)

Tximeleta beltzaren ametsa  
(...)



### → Minipuin miresgarriak / Perez Diaz, Enrique (1992)

Tximeleta hegoak  
(...)



## Olerkia

### → Tximeletak dantzan / Santisteban, Karlos (1960-...) (2005)

**Laburpena:** Tximeletak dantzan ari direnean bezala mila kolore zabaltzen dira orriotan zehar.

Gorostia desta-jantziz apainduta dago eta musker baten buztana, erdibiturik, pintzel gisa mugitzen da, paisaia bere udaberri koloreaz margotuz. Sentipen eta irudimenez beteriko olerkiak inondik ere!




## Dokumentalak

### → Jaio da tximeleta / Llewellyn, Claire (2005)

**Laburpena:** Liburu honetako orriak handituz doazen heinean, monarka tximeletaren bizi-ziklo harrigarria nolakoa den ikasiko duzu: beldar herrestaria arrautza txikitik jaiotzen, eta, gero, krisalida misteriotsu bihurtzen. Orduan izaten da aldaketa harrigarria, bai eta tximeleta polit helduaren lehengo hegaldia ere.



### → Tximeleta / Gallo, Sofia (1996)




### → Tximeleta / Milbourne, Anna (2013)

**Laburpena:** Badakizu nola jaiotzen diren tximeletak? Aurki ezazu beldar marradun bat liburu koloretsu honetan; ikusiko duzu zer gertatzen zaion.



### → Tximeletak / Davies, Kate (2012)

**Laburpena:** Milaka eta milaka tximeleta bizi dira mundu osoan zehar. Ikusi nola antzematen dituzten usainak, nola ikusten duten, zer jaten duten eta nola egiten duten hegan. Eta gero... zerbait harrigarria gertatuko da! Ikusi nola bihurtzen diren beldarrak tximeleta.



## Besteak

### → 7. Olarra beldarra / Calvo Rojo, Carmen (1998)

**Generoa:** Ariketa liburua



→ **Begira nola marrazten dudana / Batzuen artean (2010)**

**Laburpena:** Begira nola marrazten dudana: Eginkizun sinestezinak proposamenean, marrazketarako hamaika irakasbide, eranskailuen orrialde bat (sari moduan), trikimailu erabilgarriak biltzen dituen koaderno bat eta zure bidaia artistikoan lagunduko dizuten pertsonaia erakargarriak daude. Leo, June, Quincy, Annie eta Espazio Ontziri jarraituz gero, abentura bakoitzeko pertsonaiak marrazten ikasiko duzu; besteak beste, itsas dortoka bat, tximeleta bat eta koala bat.

**Generoa:** Ikasliburua



→ **Jardueren kaiera: Zientziak. CE2 - 3. urtea (2007)**

Arroltzetik tximeletara

(...)

**Generoa:** Ikasliburua



→ **Tximeleta / Beaulieu, Jeannine (2009)**

**Laburpena:** Caillouren jostaliburuak bildumako liburuetan, 3urtetik aurrerako haurrentzako jarduera didaktiko ugari daude. Jarduera horiek atseginak eta dibertigarriak ere badira. Gainera, liburu bakoitzak 50 eranskailu inguru biltzen ditu; guztiak ere txikitxoena txoratzeko modukoak.

Haurrek ederki asko pasatuko dute Caillouren eta bere munduaren irudi koloretsuekin. Eta, aldi berean, behatzeko eta arrazoitzeko duten gaitasuna hobetuko dute.

Gurasoek orrialdeetako beheko aldeko oharrei erreparatu beharko diete, jarduera bakoitzaren helburuak zein diren jakiteko. Hartara, seme-alabei euren ikaskuntza prozesuan lagunduko diete.

**Generoa:** Ikasliburua



**Udaberria / Oiarbide, Josi (2009)**

**Laburpena:** Udaberria heldu da. Kuku!

Zelaiak lorez jantzi dira, zuhaitzak hostoz.

Txoriek habiak egin dituzte.

Tximeletak airean dantzan.

Olerkiak, igarkizunak, ipuina, errezetak, fitxak, eskulanak...

Udaberria ikasiz, ondo-pasatzeko.



**Dokumentu guztiak Ikasen mediatekan atzemanen dituzue**